

“Bigär ur-jauzia, bi gara, bagara”

MARIA PANICI ETA WENTXI LAMIAK ETA LLORONAK ERAKUSKETA

Hitzak eta koloreak uztartzeaz gain, kulturak nahastea du helburu Ongi Etorri Eskolarako “Lamiak eta lloronak” erakusketak. Maria Panicik eta Wentxi artistak hartu dute parte egitasmoan



Maria Panicik eta Iñaki Gozalok (Wentxi) parte hartu dute erakusketan. AIURRI

ALBA CABRERA JAUREGI ANDOAIN
Kondaira baten eskutik, sorterrira, Errumaniara eramanez Maria Panicik Iñaki Gozalok (Wentxi) margolaria. Inork gutxi ezagutzen duen elezaharra da, baina oso bere sentitzen du Panicik Bigär ur-jauziaren istorioa. Beraz, kolore biziz gorpuztu ditu Gonzalokontalariaren hitzak. **Paisaiari dagokionez, Euskal Herriak Errumaniarekin antzekotasunak izan arren, hemen inguruan ez da Bigär bezalako ur-jauzi berezirik.**

Maria Panicik: Beharbada, egongo da, baina ez da ezaguna izango. Nire ustez, kondairak berak bihurtzen du berezi Bigär ur-jauzia. Jende asko erakartzen duen istorioa da, maitasunaz mintzo delako, eta

mundu guztiak nahi duelako maitasun-istorio ederra bizi.

Bertako uraren jauzia zoragarria da, oso ur gardena da, eta goroldioz betea dago: energia berezia transmititzen du lekuak, babesgune sentitzeraino. Pertsona askok aurkitzen dute bertan lasaitasuna, baita maitasuna ere.

Bigär-eko ura bezain libre sentitzen omen zara zu.

M.P.: Ur-jauzia jarrera baikorrez bisitatuz gero, nabari da askatasuna. Gainera, nahigabe, zu zeu murgiltzen zara istorioan. Arroken artean neska gaztea negarrez ikusten duzu. Eta sentitzen duzu Bigär, mutikoa, hor dagoela haitz baten atzean ezkatutatu zuri begira. Leku magikoa da Bigär ur-jauzia: bizitza erreala eta es-

pirituala elkartzen diren tokia da kondairaren arabera.

Ezagutzen al zenituen tokia zein kondaira, Wentxi?

Iñaki Gozalok: Ez. Itxialdian ginen eta bi audio bidali zizkidan Mariak. Laburragoa zen lehen eta bigarren baten beharra sentitu nuen istorioa hobeto ulertzeko. Azkenean, ordea, Mariaren lehen kontaketa izan nuen ardatz obra sortzeko. Beraz, saiatu nintzen bere hitzetan oinarritzen, eta horrek transmititzen zidanetik lan egiten: horregatik ez du ur-jauziarekin antzekotasun handirik; erralitatean oso leku umela da, goroldioz beteta. Nire marrazkian, ostera, agerian dago harria. Bi arroka ikusten dira parez pare eta erreka txiki bana erortzen da

horietatik, negarrez egongo balira lez. Haitzek bi mundu bereizten dituzte, gainera, erreala eta sinbolikoa, eta negar-anpuluak dira batetik bestera igarotzeko bide.

Niretzat berezi zena zen ur-jauziaren benetako irudirik ikusi gabe irudikatzea kondaira. Gainera, kontaktaren zenbait elementu ezagunak egin zaizkit, kondairek eta ipuinek, edozein dela jatorria ere, badizute beti hainbat elementu komunean.

Zaila egin al zaizu Mariaren hitzak margolan bihurtzea?

I. G.: Ez, oinarritzko ikurrak zirelako irudikatu behar nituenak, hala nola, bihotza. Ur-jauziaren izenarekin ere jolasean aritu nintzen. Bigär da tokiaren izena, eta euskaraz pararelismoa egiterik badela pentsatu nuen: Bigär, bi gara, bagara.

Bestalde, testuinguruan kokatzea garrantzitsua da. Etxean ari nintzen lanean, martxoko itxialdi betean harrapatu ninduelako proposamenak. Hala, baliabideei dagokionez, oso mugatutanga: errotulkiak, kolorezko arkatzak etabar erabili nituen. Horregatik, esaterako, soilik erreminta horiekin goroldioa irudikatzea apur bat zaila zen, teknika konplexuago eskatzen baitu. Horrenbestez, etxean nituen tresnekin sortu nuen artelana.

Finean, era sinbolikoan irudikatu dut; istorioa osatzen duten elementuak daude, baina margolanaren oinarria ur-jauziak berak atzean duen istorioa da.

Zer eman dizue proiektuan parte hartzeak?

I.G.: Ez nuen lehenagotik ezagutzen proiektua. Pena handia ematen dit, izan ere, koronabirusak eragindako egoera medio, ezin izan gara batu. Xarma handia galdu du ez elkarrikusteak. Baliagarria izan da Mariaren kultura ezagutzeko, nahiz eta oraidik ere ezer gutxi dakidan Errumaniar. Nolanahi ere, beharbada, ate bat ireki zait; izan ere, Erru-

manian bertan ere inork gutxi ezagutzen duen kondaira baten berri izan dut.

M.P.: Proiektu berria da Andoainen. Marrazkilaria parez pare duzunean bestelakoa da kontua, berari zuzenean kontatzen diozulako zure kondaira: konplizitate handiagoo sortzeko aukera dago, elkar ezagutzeko aukera handiagoo. Hori ez ezik, artistak ere zure aurpegiko jarrerak antzematuko tartea du, ez baita gauza bera aurrez aurre hitz egitea edo mugikorraren beste aldeetik kontatzea istorioa. Parez pare binkulo bat sortzen da. **Gainera, Maria, ez da herrian parte hartzen duzun proiektu bakarra.**

M.P.: Askotariko proiektutan murgilduta ibili naiz, eta horietako bakoitzean herrian apur bat gehiago bertakotzen naitela iruditzen zait; geroz eta maitasun handiagoo diot Andoaini, nire etxe sentitzen dut. Horrela jarrai dezagun, beraz.

Bigär ur-jauziaren kondaira

Munduan bakarra da ur-jauzia, eta parajeak gordetzen duen edertasun horren atzean kondaira triste bat dago. Nekazari bikote baten nahirik handiena oinordekoa izatea zen. Hala, emakumeari ametsetan sorgin batek aitortu zion beren desioa egi bihurtuko zela Minis ibaitik ura edanez gero. Alabaina, baldintza bat bete behar zuten, nahitaez: haurrak ezin izango zuen sekula maitemindu, hil egingo baitzen bestela. Handik gutxira, bikoteak neskatxa bat izan zuen, eta, gazte zelarik, Bigär izeneko mutiko bat harekin maitemindu zen. Sorginarekin oroituta, gurasoek erreka ondoko koban giltzapetu zuten



alaba, bera ere mutil gaztearekin maitemindu ez zedin. Sorginak neskatoaren negar etsiak entzun zituenean, bere ilea eta malkoak ur-jauzi bihurtuko zituela esan zion, uraren zaratak Bigär maitemina erakarriko

zuelakoan: “Alabaina, inoiz ez zarete mundu honetan batera egongo”, aitortu zion sorginak, “zure malkoetan itota hil behar du mutikoak”. Horrela, berarekin batera hilko zara eta biok beste mundu batean berpiztuko zarete, zuen maitasun-istorioa askatasunez bizitzeko”. Sorginak iragarri bezala gertatu zen guztia, eta Bigär ur-jauzia maitasunaren lekuko bihurtu zen. Orain mende batzuk gertatutako istorioa bada ere, belaunaldiz belaunaldi transmititutako kontaketa da ur-jauziaren kondaira. Egun, jende asko gerturutzen da bertara, ur-jauziako ura edanez gero, maitasuna aurkituko dutelakoan.

Gora Sanjuanak!
Gora Sanpedroak!

gozologia

arruti

Enkarguak jasotzen ditugu

943 593 777
Zumea 18, ANDOAIN